

Bibliotecas públicas para todas las personas, cuando todas somos todas

Manifiesto de Asnabi (Asociación Navarra de Bibliotecarios / Nafarroako Liburuzainen Elkarte)

Perogrullo estaría orgulloso del título de este manifiesto, si no fuera porque la afirmación obvia que plantea el título se está hoy cuestionando en las bibliotecas públicas de Navarra y en la sociedad navarra por extensión. Los bibliotecarios estamos alarmados. Los ciudadanos, por supuesto, también lo estamos. La alarma salta cuando, allá por febrero de 2009, de la biblioteca pública de Barañain desaparecen (no por su propio pie) dos de los periódicos que acostumbraban a compartir espacio con el resto. El motivo de su desaparición es que un ciudadano (en su calidad de concejal), al que esos periódicos no le acaban de gustar, lo decide así. También que otro ciudadano (en su calidad de Jefe del Servicio de Bibliotecas), por motivos desconocidos, lo decide así. Y suena, semanas después, de nuevo la alarma en las bibliotecas públicas de Pamplona-Iruña. La función de las alarmas es alarmar, y sólo escuchándolas podremos evitar que la patología se extienda, y así hacer que todo quede en un puntual esguince cultural y moral que con cuidados preventivos vuelve a estar en su sitio, y entre los cuidados está el de hacer balance de las cualidades de la biblioteca pública. Eso hacemos ahora: Las bibliotecas, mal que les pese a algunos ciudadanos, no rechazan. Las bibliotecas públicas están hechas de un tejido inusual, un tejido no comercializable, no ideológico, un tejido que se expande, un tejido no censor. Ahí radica su grandeza, en su permeabilidad y su infinita capacidad. Cuando se edita un nuevo libro, una nueva revista, un nuevo periódico, un nuevo pensamiento manuscrito, la biblioteca se hace de inmediato unos centímetros más grande, con el único fin de acoger al recién llegado, de hacerle un sitio. De esta forma, todo lo ya creado y lo aún por crear tiene un lugar, la biblioteca pública, en el que poder respirar, codearse con los de su especie (la magnífica especie de lo escrito) y hacerse accesible al mundo, a los lectores. Y si no es así, la biblioteca pública enferma; y la única terapia para reconstituirla será tejerla de nuevo ese traje elástico, reconstruir ese continente de contenido infinito que nunca se debió quebrar. La biblioteca pública es uno de los enclaves básicos de la cultura. Y la cultura, la civilización, no es sino esto: Que una bibliotecaria ultraurbanita preste con su mejor sonrisa un libro sobre la corteza del abedul. Que conviva un libro de física cuántica, apoyado tapa con (no contra) tapa, al lado de uno que apueste firmemente por la teoría de la relatividad. Que haya libros en papel, y que haya otros que podamos leer en Internet. Que se crucen y saluden en la entrada de la biblioteca el que porta un disco de Salieri y el que va en busca de otro de Mozart. La cultura es que todo, todas, todos, tengamos cabida en la biblioteca pública. Hemos dicho una y mil veces "hay un libro para cada lector", con la aspiración soñada de que todos podemos ser amantes de un libro, para después convertirnos en concubinos de cientos. ¿Qué sucede entonces si no hay un libro para un lector?, y aún peor, ¿qué sucede si hay un libro para un lector y ese libro se lo quitamos a ese lector de las manos? Si un libro, una revista, un periódico, un papel lleno de tinta significativa, no es bienvenido a las bibliotecas públicas, no nos engañemos, eso significará que un lector, y tal vez otra, y otra, y otro lector, tan ciudadanos como el resto, no son bienvenidos a las bibliotecas públicas. No, no nos engañemos: es como si instalamos una cuerda con la señal de "prohibido" en la puerta de la biblioteca y la extendemos o no, en función de quién se acerca, es como si editamos carnés de biblioteca de primera y segunda categoría, unos magenta, otros de otro color; es como si colgamos en el día del libro grandes letreros que digan "lean, pero no lean todo"; es como si a un lector de un periódico, le damos otro periódico, le damos el periódico que a mí me gusta, y no el periódico que él quiere leer; es como si ponemos entre comillas (y no subrayado, como debiera) el "pública" de la biblioteca pública. Los que suscribimos este manifiesto sentimos que haya llegado este triste momento en que este manifiesto se ha tenido que idear, y firmar.

Herri Liburutegiak denontzat, denok den-denak garenean

(Asnabiren adierazpena: Asociación Navarra de Bibliotecarios / Nafarroako Liburuzainen Elkarte)

Pellokeria adierazpen honen izenburuan ezta? Horrela izanen litzateke Nafarroako gizartean eta Nafarroako Liburutegi Publikoetan bertan erraten dena gaur egun dudetan ez balego. Liburuzainok kezkatuta gaude. Baita hiritarrak ere, jakina. Alarma pizten da 2009ko otsailaren aldean, Barañaingo Liburutegi Publikotik bertzen artean ziren bi egunkari desagertzen direlarik (eta ez ospa egin dutelako). Zergatia arras sinplea da: hiritar batek -zinegotzia dena- ez zituen gustokoak, eta desagertaraztea erabakitzen du. Eta bertze hiritar batek -Liburutegi Zerbitzuen Zuzendaria dena- ezjakinak diren arrazoiengatik, baita honela ere erabakitzen du. Zenbait aste geroago, alarma berriz ere pizten da Iruñeko Liburutegi Publikoetan. Alarmen zeregina arreta jasotzea da, eta gaixotasuna gero eta zabalagoa ez badugu izatea nahi kasu egin behar diegu. Beharbada honela auzia min kultural eta moral arin bat izatetik ez da pasako. Beharbada zaintza egoki batekin dena bere onera itzuliko da. Ezinbestekoak diren zainketen artean liburutegi publikoen ezaugarrien hausnarketa egitea da. Hori da hain zuzen ere orain egingo duguna: Hiritar batzuen gustokoak ez badira ere, liburutegiak ez dira horrelakoak. Liburutegiek ez dute baztertzen. Liburutegi publikoak oso ehun berezi batez eginak gabe eta ez da sekulan ehun zentsuratzaile izanen. Horren iragazkor izatean eta bere bukaezinezko zabaltasunean datza bere handitasuna. Liburu berri bat, aldizkari berri bat, egunkari berri bat, eskuz izkribatutako pentsakera berri bat kaleratzen den momentu berean liburutegia zentimetro batzuk zabalago egiten da, heldu berriari lekutxo bat egiteko asmoz. Honela sortu den guztiak eta sortzeko dagoenak badu bere tokia liburutegi publikoan. Honela arnas dezake, honela alderatu daiteke, honela munduaren eskura jartzen da. Eta horrela ez bada, liburutegi publikoa gaixotu egiten da, eta duen sendagai bakarra honako hau da: berregin berezkoa duen soineko elastiko hori, berregin barnean infinitoa jaso dezakeen ehuna, sekulan ez zena hautsia izan behar. Liburutegi publikoak kulturaren oinarrizko ardatzen artean dago. Eta kultura, zibilizazioa zera baino ez da: Erabat hiritarra den libuzain batek urkiaren azalari buruzko liburu bat maileguan eman dezan bere irribarre hoberenarekin. Azalez azal (eta ez azal azalaren kontra) elkarbizi daitezen fisika kuantikoaz mintzatzen den liburu eta erlatibitatearen teoria irmoki defendatzen duena. Paperetan irakurri daitezken liburuak eta Interneten irakurtzekoak egon daitezken. Liburutegiko atarian topo egin eta elkarri agurtu diezaioten Salieriren diska bat daramanak eta Mozarten disko bila doanak. Gauza, pertsona eta idea guztiak liburutegi publikoan lekua izatea da kultura. Mila aldiz erran izan dugu "bada liburu bat irakurle bakoitzarentzat", eta horrela adierazten genuen gure ametsik preziatuena: denak izan gaitezen liburu baten maitaleak ondoren bertze mila liburuen amoranteak bilakatzeko. Zer gertatzen da, irakurle batentzat ez bada bere liburu? Eta okerrago, zer gertatzen da liburu egonik eskuetatik kentzen badiogu? Liburu bat, aldizkari bat egunkari bat edo zentuz idatzitako paper bat ez bada ongietorria liburutegi publikoetan, ez tronpatu: horrek esan nahi duena da, irakurle bat, eta agian bertze bat, eta bertze bat, eta bertze hori ere -zuk bezain besteko eskubideak dituen hori- ez diren ongi etorriak liburutegi publikoetara. Ez. Ez tronpatu: Segun eta nor hurbiltzen den "Sarrera debekatuta" errango zuen txartel bat zabalduko bagenu bezalakoxea da. Lehenengo eta bigarreneko mailako irakurle txartelak egingo bagenu bezala izango litzateke, segun eta nori, kolore batekoa edo bertzekoa emateko. Liburuaren egunean txartel handi batean "Irakur ezazu baina ez irakur denetarik" idatziko bagenu bezala izango litzateke. Egunkari baten irakurleari gustokoa eta irakurri nahi duena eman beharrean niri gustatzen zaidan egunkaria emango bagenio bezalakoxea da. Azpimarratua joan behar dena liburutegi publiko -n azpimarratu beharrean "publikoa" komatxoaren artean jartzea da. Idazki hau sinatzen dugunak, idazki hau idazteko momentua heldu izanak tristuraz betetzen digu.